

2 ENPRESABURUA ETA ENPRESA MOTAK

2.1 Enpresaburuaren irudia: kontzeptua eta motak

2.1.1 Knight-en enpresaburu-arriskua

2.1.2 Schumpeter-en enpresaburu berritzailea

2.1.3 Galbraith-en enpresaburua teknoegitura gisa

2.2 Enpresen sailkapenak

2.2.1 Neurriaren arabera

2.2.2 Jarduera sektorearen arabera

2.2.3 Kapitalaren jabetzaren arabera

2.2.4 Forma juridikoaren arabera

2.3 Enpresaren forma juridikoa

2.3.1 Enpresaburu indibiduala

2.3.2 Sozietate kolektiboa

2.3.3 Erantzukizun mugatuko sozietatea

2.3.4 Sozietate anonimoa

2.3.5 Lan sozietatea

2.3.6 Sozietate kooperatiboak

2.1 ENPRESABURUAREN IRUDIA: KONTZEPTUA ETA MOTAK

Edozein enpresaren funtsezko irudia enpresaburua da. XX. mendean zehar, egileek teoria ugari landu dituzte enpresaburuak enpresan egin behar duen eginkizunari buruz eta enpresaburuaren eginkizuna definitzen duten ezaugarriak azpimarratu dituzte. Ondoren garrantzizkoenak aztertuko ditugu:

2.1.1 Knight-en enpresaburu-arriskua.

Autore honentzat arriskua da benetako enpresaburua definitzen duena. Enpresa jarduerak etorkizunean izango diren ustezko sarrera batzuegatik aldeztatik aurretik ordainketak ziurtatzea da.

Teoria horren arabera, enpresaburuak faktore produktiboak erosi edo kontratatzen ditu *aurrez mugatutako* prezio batzuetan eta hitzartutako errenta ordaintzen du (errentak, lansariak eta soldadak, interesak eta mozkin arrunta, enpresaren kostuak, azken batean) bere produktuen salmentagatik lortuko dituen diru-sarrerak *ezagutu aurretik* eta horrekin, enpresa etekina eta hondar errenta bilatuko du, beti ere *ezjakina edo ezezaguna*, enpresa jardueraren garapenean *ziurgabetasuna* baitago. Ziurgabetasun horrek esan nahi du enpresaburuak ez dakiela ziur zein izango diren bere enpresa jardueratik etorriko diren ondorioak, eta horregatik, aurreikuspen multzo bat egin beharko du enpresaren etorkizun ekonomikoari aurre egiteko. Enpresaburuak aurreikuspenetan asmatuz gero eta diru-sarrerak kostuak baino *handiagoak* izanez gero, mozkin edo hondar errenta (mozkin ezohikoa) lortuko du, eta hori da, hain zuzen, gelditutako zaiona faktore produktiboen jabeai haien erabileragatik ordaindu ondoren. Kalkulua okerra bada, ordea, sortzen diren galerak jasan beharko ditu.

Enpresaburuak egin beharreko aurreikuspenak dira:

- Kontsumitzaileen beharrak ezagutu eta bere produktuek izan dezaketen eskariaren estimazioa egin.
- Mugatu (ezarri) bere produktuen salmenta prezioak, edota, kostuak egokitu saldu beharreko unean bere produktuak aurreikuspenez izango duten salmenta prezioetara.

Egoera ekonomikoaren eta eragile ekonomikoen jokabideari buruz enpresaburuak duen informazioa eta jakite mailaren arabera, ziurgabetasuna handiagoa edo txikiagoa izango da, eta ondorioz, egingo dituen aurreikuspenak gutxi edo gehiago zuzenak izango dira.

Ziurgabetasunari dagokionez, neurtu egin daiteke, eta kasu horretan, estaliko duen aseguru hitzartu daiteke eta horrela, enpresaburuak ez du arriskurik hartzen bere gain (*Adib.: Enpresaburuaren ustez produktuen %5 akastunak izango dira eta itzuli egingo dizkiote, beraz, aseguru bat kontratatzen du arrisku hori estaltzeko, baina, trukean kostuak handituko zaizkio eta bere enpresa mozkina gutxitu egingo da*), edo ezin daiteke neurtu, eta kasu horretan ezin daiteke aseguratu eta enpresaburuak arriskua bere gain hartu behar du (*Adib.: Bere produktuen eskaria handitu edo gutxitu daiteke*).

Laburbilduz, ingeles ekonomista Frank Knight-ek enpresaburuaren teoria bat aurkeztu du: enpresaburuaren eginkizun nagusia faktore produktiboen jabeen errentak bermatzea da (errentak, lansariak eta soldatak, interesak eta mozkin arrunta), enpresaren jarduera ekonomikoaren arriskua bere gain hartzea eta enpresa etekina edo hondar errenta bilatzea (ezohiko mozkina), ordain gisa arrisku hori bere gain hartzeagatik.

2.1.2 Schumpeter-en enpresaburu berritzailea.

Schumpeter-entzat, enpresaburua garapen ekonomiko kapitalistaren protagonista nagusia da eta haren eginkizun nagusia **berrikuntzarena** da, hau da, asmakuntza teknologikoak aplikatzea merkataritza edo industria erabilerei.

Egile honen arabera, sistema ekonomikoa oreka egoeran egon ohi da, non enpresen diru-sarrerak produkzio kostuen **gehi** enpresa zuzentzeagatik enpresaburuak jasotzen duen lansariaren berdina den, eta mozkin arrunta deitzen dio; egoera horretan, hondar errenta edo ezohiko mozkina zero da.

$\text{Diru-sarrerak} = \text{Produkzio kostua} + \text{Enpresaburuaren lansaria (mozkin arrunta)}$

Oreka egoera horrek enpresaburuak berrikuntzaren bat egin arte iraungo du (ondasun berri bat sartu, merkatu berriak ireki, produkzio metodo berriak sartu etab.). Berrikuntza horren bitartez, oreka egoera aldatu egiten da eta enpresak behin behinekoz lortzen du monopolio egoera bat, produktuen prezioa handitzen, eta mozkin ezohiko edo hondar errenta lortzen lagunduko diona. Horixe da enpresaburuari geldituko zaiona faktore produktiboen jabeen haien erabileragatik ordaindu ondoren eta enpresa zuzentzeagatik kobratutako lansariaren ondoren.

Denbora igaro ahala, beste enpresaburu batzuek (*imitatzaileek*), mozkin altuak erakarrita, imitazioak sortzen dituzte eta enpresaburu berritzailearekin sartzen dira lehian. Lehiakortasun horren ondorioz, ezohiko mozkinak hasierako oreka egoerara murrizten dira, non ez dagoen ezohiko mozkinik eta beraz, ez dira enpresaburu berri imitatzaileak sortuko.

Ondorioz, Schumpeter-en arabera, sistema kapitalistan garapen ekonomikoa aldaketa teknologikoaren ondorioa da, eta enpresaburua aldaketa horren protagonista nagusia da. Gaineratzen du aldaketa teknologikoa hiru fasetan burutzen den prozesua dela eta nortasun desberdinak dituzten pertsona desberdinek egiten dutela, alegia:

- **Asmaketa**: Produktu berriak edo prozesu produktibo berriak sortu eta aurkitzea. Ez da enpresaburuen eginkizun eksklusiboa eta egiten duten pertsonak asmamenaren eta sormenaren alorrari dagozkio.
- **Berrikuntza**: Jadanik dauden asmakuntzak praktikan jartzea edo asmamena merkataritza edo industria erabileretara aplikatzea. Funtzio hori enpresaburu berritzailearen eginkizun nagusia da.
- **Imitazioa**: Berrikuntzaren kopia. Hari bigarren mailako alderdiak aldatzen zaizkio (diseinua, ontzia, kolorea etab.). Imitazioa enpresaburu kontserbadoreek edo lehiakortasuna handitzeko eginkizuna dutenek egiten dute, beraz, berritzaileen ezohiko mozkina gutxitzen da.

Azkenik, beharrezkoa da azpimarratzea ezohiko mozkina edo hondar errenta, Schumpeter-en arabera, merkatuari aplikagarria zaion berrikuntza bat egiteko gauza izan delako enpresaburuak jasotzen duen ordaina dela. Horretan **ez dator bat Knight**-en teoriarekin, esaten duenean enpresaburuak enpresa jarduera egiteagatik bere gain hartzen duen arriskuaren truke jasotzen duen ordainsaria dela; hala ere, Schumpeter-en iritziz, enpresaburuak ez du zertan arriskua bere gain hartzen duen pertsona izan behar, baizik eta hura jabea litzateke, kapitala jartzen duena, edo mailegatzalea, maileguak ematen dituen, horiek baitira galera jasaten dituztenak enpresak porrot eginez gero.

2.1.3 Galbraith-en enpresaburua teknoegitura gisa.

Mendebaldeko herrialde garatuenetan, enpresa korporazio handiek agintzen dute ekonomian, eta merkatuan beren komenentziaren arabera eragiteko behar adina botere dute.

Konpainia handi bat ezin du pertsona bakar batek zuzendu, baizik eta teknikari profesional ugari behar izaten dira (ekonomistak, ingeniariak, lantegi buruak, abokatuak...), batera lan egiten dutenak. Galbraithek *teknoegitura* deitzen die.

Teknoegitura enpresari ezagupen espezializatua, talentua edo talde erabakiak hartzeko eskarmentua¹ eskaintzen dion pertsona taldea da. Gaitasuna horiek pertsona bakoitzak bere aldetik duen ezagupen gaitasuna gainditzen dute.

Pertsona talde horrek, zuzendariak edo administratzaileak izenekoak, enpresa handietan erabaki garrantzitsuak hartzeko beharrezko datuak izaten dituzte eskura eta haiek dira benetan gobernatzen dituztenak (nahiz eta haietako asko akzioduna ez izan), akziodunek ez baitute egiazko botererik enpresa mota horretan. Galbraith-ek enpresaburuaz hitz egiten duenean, ez da pertsona bakar batez ari, *teknoegitura* gisa definitutako talde buruzagiaz baizik.

Teknoegituraren menperaketa² kausa *enpresaren jabetzaren (akziodunak) arteko eta enpresaren kontrol edo administrazioaren (zuzendariak edo administrariak) arteko* bereizketari zor zaio. Bereizketa hori gertatzen da akziodunak oso zatituta daudenean jarrera pasiboa izaten dutelako eta beren eskubideak administratzaileen eskuetan uzten dituztelako. Administratzaileetatik

¹ Eskarmentua = *Experiencia*

² Menperaketa = *Dominación*

espero izaten dute beren kapital ekarpenengatik ordainketa egokia jasotzea, akzio bakoitzeko mozkin kantitate jakin baten moduan, *dibidendua*, hain zuzen ere.

Aurreko egoeraren ondorioak dira:

- Zuzendariek edo administratzaileek enpresaren kontrola dute eta enpresaburuaren funtzioa egiten dute.
- Enpresaren hazkundera eta eraginkortasuna bilatzen dute jabeen konfiantza mantendu eta boterea gordetzeko, eta, aldi berean, beren helburu pertsonalak erdiesteko (dirua, fama, entzutea...).

2.2 ENPRESEN SAILKAPENAK.

Badira enpresa guztiei aplikagarriak zaizkien legeak edo printzipio ekonomikoak, dena dela beren mota. Baina printzipio orokor horiekin batera, enpresa mota bakoitzak bere berezitasunak ditu, eta bai eta enpresa jakin bakoitzak ere, betiere zein den bere egoera eta bizi duen kontingentzia.

Enpresa mota ugari daude. Orobat, irizpide asko erabil daitezke haiek sailkatzeko. Erabilienak azpimarratuko ditugu.

2.2.1 Neurriaren arabera.

Irizpide honek hiru kategoriatan banatzen ditu enpresak: txikiak, ertainak eta handiak. Gainera, ETEak (enpresa txiki eta ertainak) eta multinazionalak, enpresa bereziki handiak, aipatu ohi dira. (3. gaian azken hauei buruz arituko gara)

Ez dago akordio orokorrik enpresen neurria zehazteko, ez eta zein dimentsio izan behar dituzten ere mota batekoa edo bestekoa izateko, inguruabar³ askoren mende baitago hori. Esate baterako, Estatu Batuetako enpresa txiki bat enpresa ertaina edo handia izan liteke Espainian. Hala ere, gehien erabiltzen diren adierazleak hauek dira:

1. Langile kopurua
2. Salmenta bolumena
3. Aktiboa

Asko erabiltzen den irizpidea, erraza delako, langileen kopurua da. Hala, mikroenpresak dira 10 langile baino gutxiagokoak, txikiak 50 langile baino gutxiagokoak, ertainak 50 eta 250 artekoak, eta handiak, 250 baino gehiagokoak.

Orokorrean, enpresaren kudeaketaren azterketa enpresa handietan bereziki aritu bada ere, errealitatean hemengo enpresa gehienak txikiak eta ertainak dira (ETE); Estatuan, ETE-ak enpresen %99 dira, BPGaren 2/3 baino gehiago sortzen dute eta enpleguaren %80 biltzen dute. Europako herrialde gehienetan gauza bera gertatzen da. Horregatik dimentsio txikiaz ari bagara ere, gizarte eta ekonomiaren aldetik, garrantzi handikoak dira, espainiar eta europar familia gehienak enpresa hauek eskainitako enpleguari esker bizi baitira.

ETE baten ezaugarriak hauexek dira:

- Bere merkatu zatia txikia da eta bere jarduerak ez du herrialdean eraginik, ezta eskaria osoan ere.

³ Inguruabar = *Circunstancia*

- Normalean ez dira zuzendari profesionalak kontratatzen eta Jabeek beraiek zuzentzen dute enpresa.
- Erabakiak hartzeko autonomoak dira; merkatuak onartzen dituen mugen barruan egonik, kanpo kontroletik aske daude.

Aldi berean, eta aldeztu aurretik aipatutako adierazleak kontutan hartuta, ETE, enpresa txiki bat eta mikroenpresa baten artean ezberdintasuna ikus dezakegu :

	ETE	Enpresa txikia	Mikroenpresa
Langile kopurua	< 250	< 50	< 10
Salmenta bolumena (miloi euro)	< 50	< 10	< 2
Aktiboa (miloi euro)	< 43	< 10	< 2

Adierazle hauetaz gain, enpresa bat ETE, txikia edo mikroenpresa bezala sailkatzeko, enpresa talde baten barruan egotea edo bere merkatu kuota kontutan hartu behar dira.

Hurrengo taulan ETEn abantaila eta desabantaila nagusiak jasotzen dira:

ABANTAILAK	DESABANTAILAK
Bezeroarekin duten gertutasuna eta harreman zuzenari esker, posizio pribilegiatua dute barruko merkatuetan.	Prezio altuagoak, enpresa handiek dituzten hedadura ekonomiak ez izateagatik.
Enpresa handien laguntzaileak izan daitezke bai industria produkzioan (piezen, zatien...ekoizpenean), baita zerbitzu banaketan ere.	Oro har, ez dute finantza-gaitasun nahiko eta horregatik banku kreditu edo maileguak lortzeko zailtasun handiagoak dituzte, baita beste finantza-aukeretarako ere, hala nola, burtsa, obligazioen jesapena, etb.
Aldaketa egoera koiunturalen aurrean (krisialdiak), malgutasuna eta gainditzeko ahalmena.	I+G+B-rako indarrak txikiak dira.
Asmatze eta sormen ahalmenari esker, bezeroaren beharretara produktuak eta teknikak egokitzeko egoera hobean dago.	Bere hornitzaile eta bezero multzoaren aurrean ez dute kontrolik, abantailarako posizio batean egoteko baldintzak ezartzeko aukerak galduz.
Denbora gutxian jardueraz aldatzeko aukera, lan eta produkzio egitura malguei esker (antolakuntza).	Ez dago planifikazio estrategikorik, "egunean egunekoa" egiten da.

Merkatu globaleko ekonomian, ETEn mehatxu nagusia multinazionalak dira, hauek duten botere ekonomiko, politiko eta sozialari esker sektorearen funtzionamendurako arauak ezar ditzaketelako, ETEn sarrera oztopatuz edo irteera bultzatuz.

2.2.2 Jarduera sektorearen arabera.

Irizpide horren arabera, hiru motatako enpresak daude: lehen, bigarren eta hirugarren mailakoak.

Hiru sektore handi bakoitzaren barruan, sailkapen ugari egin daitezke erabiltzen den desagregazio mailaren arabera.

- **Lehen mailako enpresak.** Lehengai nagusia naturaren zati bat duten enpresak dira. Beren produkzio prozesua elementu horren garapen naturala sustatzea da ondoren merkaturatzeko. Sektore honi dagozkio nekazaritza, abeltzaintza, baso eta arrantza enpresak.
- **Bigarren mailako enpresak edo industrialak.** Produktuak lortzeko lehengaiei eraldatze prozesu teknikoak aplikatzen dizkieten enpresak dira. Eraldatu beharreko lehengaiaren arabera, adar edo jarduera azpisektoretan banatzen dira: elikadura, metalaren produktuak, ontzigintza, automobilistika etab.
- **Hirugarren mailako enpresak edo zerbitzu enpresak.** Multzo honetako enpresen egitekoa zerbitzu bat eskaintzea da. Ez dituzte eraldaketarako lan teknikoak egiten. Maila honetan azpisektore ugari sartzen dira: banku jarduera, irakaskuntza, zerbitzu profesionalak, ostalaritza, garraioa etab.

2.2.3 Kapitalaren jabetzaren arabera.

Irizpide honen arabera, enpresak honela sailkatzen dira: **pribatuak, publikoak eta mistoak.**

- **Enpresa pribatuak.** Enpresaren kapitala partikularren jabetzakoa da. Merkatu ekonomiaren sisteman dagoen enpresa ohikoena da eta erreferentzia gisa erabiltzen da ekonomian enpresaz hitz egiterakoan.
- **Enpresa publikoak.** Kapitala Estatuarena edo beste edozein Erakunde Publikorena da. Merkatuan normalak diren xedeetatik (mozkina bilatzea, besteak beste) gain dauden helburuak dituzte. Adibideak: RENFE, CORREOS, SODENA, PLANETARIO, BALUARTE... Gaur egun, herrialde askotan, enpresa publikoen pribatizatze prozesu handiak burutzen ari dira.
- **Enpresa mistoak.** Kapitala, zati batean, Erakunde Publikoena da, eta beste zatian, partikularrena. Bi aldeetatik enpresaren kontrola nork duen, aurreko atal batean edo bestean sartuko da. Sektore publikoak %50eko edo gutxiagoko partaidetza duten nafar enpresak, besteak beste: EHN*, RETENA*, LABORATORIOS CINFA, GAS NAVARRA...

2.2.4 Forma juridikoaren arabera.

Enpresa orok espainiar arauetan aurreikusitako forma juridikoren bat hartu behar du. Enpresaburu indibiduala izan liteke, hau da, pertsona fisiko bakarra; edo enpresaburu soziala, hau da, pertsona juridikoa edo merkataritza sozietatea. Forma juridikoaren sailkapen irizpidea kontuan hartuz, ondorengo irudi juridikoak bereizten dira

- Enpresaburu indibiduala
- Sozietate kolektiboa
- Erantzukizun mugatuko sozietatea
- Sozietate anonimoa
- Lan sozietatea
- Sozietate kooperatiboak

2.3 ENPRESAREN FORMA JURIDIKOA.

Enpresa batzuk beste batzuetatik bereizteko sailkapen irizpideetako bat legalki funtzionatzeko erabiltzen duten forma juridikoa da. Enpresa bat sortzeko erabakia hartzean,

garatu nahi den proiektuaren ezaugarrietara hoberen egokitzen den forma juridikoaren azterketa egin behar da. Espainiar arauen arabera, enpresa bat sortzen duen edo duten pertsonak edo pertsonak era askotako forma juridikoen artean aukera dezakete, eta beren interesei gehien egokitzen zaien forma hartu.

Forma juridikoak bereizten dituzten ezaugarriak dira:

- Jarduera
- Beharrezkoa den kapital bolumena
- bazkide kopurua
- enpresaren jabetzara sarbidea izateko modua
- hirugarrenen aurrean dagoen erantzukizuna
- Arlo fiskalak eta,
- gobernua eta enpresaren ordezkaritza.

- Jarduera:

Jarduera batzuk derrigorrez forma juridiko zehatzetan eratu behar dira: Aseguruak, banka, jokoak, leasing besteak beste sozietate anonimoak bezala eratuko dira.

- Bazkide kopurua:

Tradizioz forma juridiko pertsona bakarrekoen eta sozietarioen artean bereizten zen. Lehenean enpresaren jabea pertsona bakarra zen, eta bigarrenean, aldiz, jabe bat baino gehiago zuen (bazkideak izenekoak), merkataritza jarduerak egiteko sozietatea eratzen zutenak.

- Beharrezkoa den kapital bolumena: edo proiektuaren behar ekonomikoak

- Enpresaren jabetzara sarbidea izateko modua:

Indarrean dagoen legeriak enpresaren jabegoa izateko bi modu baimentzen ditu:

- Bata enpresari **dirua** ematea da (ohikoenak), **ondasunak** (lurrak, bulegoak, ordenagailuak...) edo **eskubideak** (partizipazioak inbertsio funtsetan, Estatu bonuetan, beste enpresa baten akzioak...)
- Enpresaren jabetzara sarbidea izateko beste modu bat **lana** jartzea da.

Badira bi mota horien artetik bakarra soilik onartzen duten sozietateak eta beste batzuek bi motatako ekarpenak egiten uzten dute.

Gainera, zenbait kasutan, bazkideen ospe profesionala funtsezko eskakizuna da eta enpresaren jabetzarako sarbidea mugatzen du. Bazkide guztien baimena behar izaten da sartzeko, eta beraiekin elkartzeko beharrezko jotzen dituzten baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak sartzeari saihesten dute. Abokatu bulego batean, adibidez, bulegoaren entzutea, oro har, hura osatzen duten abokatu bakoitzak duen entzutearen⁴ mende dago.

Aldiz, badira jabetzaren transmisioan ia mugarik ezartzen ez dituzten sozietate motak (adibidez, Telefonica bezalako enpresa handi batean, jabetza tituluak sal daitezke gainerako bazkideen baimenik eskatzeko beharrik izan gabe).

Bestalde, **gizarte ekonomiako enpresak** izenekoak daude. Haietan, jabeek aldi berean enpresaren langileak behar dute izan. Ezaugarri horri esker, haien lehentasuna ez da

⁴ Entzutea = Prestigio

horrenbeste sozietatearen mozkina lortzea, beren lanpostua iraunaraztea baizik. Horregatik, sozietate mota honetan, jabetza tituluen transmisioa ezin daiteke libre egin, eta langile-bazkide taldeak du azken hitza bazkide berriak onartzeko orduan.

- Erantzukizuna hirugarrenen aurrean:

Zenbait forma juridikotan, jabeek enpresak egin litzakeen zorren aurrean erantzuten dute beren ondasun indibidual guztiekin, nahiz eta haiek ez diren zuzenki erabiltzen jarduera ekonomikoan. Adibidez, enpresa batek ordaindu behar dituen zorrak egiten baditu eta daukan guztia saldu arren ez badu haiek kitatzeko nahikoa, jabeak edo jabeek gainerakoa ordaindu beharko dute, beren ondasunekin, inolako mugarik gabe. Horregatik, enpresa horietan esaten da jabeen **erantzukizuna mugagabea** dela. Enpresa horietako bazkide batzuek, gainera, modu **subsidiarioan** erantzuten dute (zorrak hartu behar dituzte beren gain, sozietateak egiten ez badu); eta modu **solidarioan** (zorraren osotasuna eska dakioke bazkide bakoitzari edo haietako bati, indibidualki).

Aitzitik, beste forma juridikoetan, jabeek sozietatearen zorrei bakarrik erantzuten diete beren ekarpenaren zenbatekoarekin. Beren **erantzukizuna**, kasu horretan, **mugatua** da. Horrek esan nahi du enpresak ezin badu hartzekodun batekin egin dituen zorrak osorik ordaindu, jabeek soilik beren ekarpenaren zenbatekoarekin erantzungo dietela sozietatearen zorrei, ez badute behintzat konprometitutako ekarpenaren osotasuna ordaindu. Azken kasu horretan, bazkideak egin beharko luke eta diru kopuru hori galduko luke, baina inoiz ez enpresan duen partaidetzaren balioari dagokiona baino diru gehiago.

- Arlo fiskalak:

Forma juridiko ezberdinek ezarpen fiskal ezberdinak izan ditzakete, enpresaren tamainaren arabera edo babestuak dauden gizarte ekonomietara lotuak dauden.

- Enpresen gobernu eta ordezkaritza:

Enpresaren forma juridikoak bereizten dituen azken berezitasuna haien gobernu antolakuntza modua eta kanpo ordezkaritza da.

- Enpresaren gobernu bere zuzendaritzarekin eta administrazioarekin zerikusia duten jarduerak egiten dituen pertsonak edo erakundeak du. Pertsona edo erakunde horiek hartzen dituzte enpresaren bizitzan eragina duten erabaki garrantzitsuak.

- Enpresaren kanpo ordezkaritza, agintarien eta auzitegien aurrean erantzuten duen pertsonak du, enpresa jardueraren esparruan eginiko jarduera desegokietatik eratorritako balizko erantzukizunengatik.

Enpresaburu indibiduala izan ezik, bere kasuan enpresaren gobernu eta ordezkaritza pertsona berean baitago, beste forma juridikoetan enpresaren gobernuaz arduratzen den organismoa eta haren ordezkaritza duena bereizi egiten dira.

ENPRESAREN FORMA JURIDIKO NAGUSIAK**A) Enpresaburu indibiduala.** Pertsona fisikoa**B) Enpresaburu soziala (Enpresa sozietarioak).** Pertsona juridikoa. Enpresak indibidualtasun propio eta desberdina du eta bazkide bakoitzak duenetik bereizten da.**B.1) Sozietate Pertsonalistak. Funtsezkoa hura eratzen duten pertsonak dira:**

- ♦ Sozietate kolektiboa (EKS edo SKI)

B.2) Sozietate Kapitalistak. Funtsezkoa kapital ekarpena da:

- ♦ Erantzukizun mugatuko sozietatea (SM edo EMS)
- ♦ Sozietate anonimoa (SA)

B.3) Ekonomia sozialeko enpresak:

- ♦ Lan sozietatea (LSA edo LSM)
- ♦ Sozietate kooperatiboa (S Koop.)

2.3.1 Banakako enpresaburua (indibiduala).

Adinez nagusiak (18 urte) diren enpresaburu indibidualak izan litezke, beren ondasunen erabilera librea dutenak edo adinez txikikoak edo ezinduak, beren legezko ordezkarien bitartez.

Enpresaburu indibidual edo autonomoa irabazi asmoarekin jarduera ekonomikoa egiten duen pertsona fisikoa da, laneko kontratu bati lotuta egon gabe.

Ondasun pertsonalen eta enpresaren ondasunen artean *bereizketarik ez dagoenez gero*, enpresaburuak, enpresaren jabe bakarrak, **erantzukizun mugagabea du**, hau da, enpresaren zor guztiei erantzuten die oraingo eta etorkizuneko ondasun guztiekin.

Enpresaburua ezkontuta badago, bi ezkontideek jarduera berean parte hartzen badute, ondasun guztiekin erantzuten dute.

Enpresaren gobernua edo kudeaketa, hala nola ordezkaritza, titularrari dagozkio, nahiz eta bere izenean jardungo duten ahalduak⁵ izendatzeko aukera izan.

Enpresa hauen **abantaila** nagusia da enpresaburuak erabaki guztiak har ditzakeela inoren mende egon gabe. Gainera, enpresak lortzen dituen mozkin guztiak beretzat dira.

Enpresaburuak arrisku handiak hartzen ditu bere gain, ordea. Hori da **eragozpen** nagusia, ondasun guztiekin erantzuten baitu edozein arazoren aurrean, eta enpresaren garapen osoa bere esku dago, bere senaren, osasunaren eta lanaren esku, besteak beste. Horregatik, enpresa indibidualek arazoak izaten dituzte maileguak edo kredituak lortzeko eta horrek hazteko dituen aukerak zailtzen ditu.

Ekintzaile askok enpresaburu indibidualaren forma aukeratzen dute negozioa txikia denean, arrisku txikikoa eta hasieran inbertsiorik egin behar ez denean (denda txikiak, tabernak...). Kasu horietan, eskakizun formal urriek eta forma juridikoaren bakuntasunari⁶ esker, beste formak baino hobea izaten da.

⁵ Ahalduak = Apoderados

⁶ Bakuntasuna = Simplicidad

Merkataritza Erregistroan egin beharreko izen ematea borondatezkoa da, beraz, ez du alde zureko eraketa prozesurik eskatzen, eta ez dago kapital mugarik ere. Izena titularren izen zibila izango da.

ADIBIDEA: *Pertsona batek hogeit hamar urte darama enpresa handi batean lanean, erdiko maila duen erantzukizun postu batean, jardun intentsiboko ordutegiarekin eta horri esker arratsaldeko hiruretan irteten da. Bere lanetik lortzen duen lansariarekin lanik egiten ez duen emaztearekin bizi den etxebizitza erostea lortu du. 60 mila euro aurrezteko ere lortu du bankuko kontuan. Arratsaldean denbora libre duenez gero, aurreztu duen 60 mila euroekin negozio bat irekitzea erabaki du. Bere jarduerari ekiten dio pertsona fisiko moduan eta, nahiz eta hasieran gauzak ondo joan, pixkana zailtasunak izaten ditu hornitzaileekin egindako konpromisoak betetzeko, diru-sarrerak ez baitira nahikoak. Une jakin batean, adierazi behar izaten die ez duela diru nahikorik gainerako ordainketei erantzuteko, beraz, negozioaren ondarea likidatzeari ekiten dio, eta oraindik ere hainbat hornitzaile daude kobratzeko zain.*

Eska liezaiokete hornitzaileek enpresaburuaren jabego pertsonalekin ordaintzeko, hain zuzen ere, etxebizitzaren salmentarekin? Horixe da, bestalde, jabetzan gelditzen zaion gauza bakarra.

2.3.2 Sozietate kolektiboa.

Sozietate kolektiboa izaera pertsonalista duen merkataritza sozietatea da. Bazkide guztiek lana jartzen dute eta gainera, haietako askok kapitala (dirua, ondasunak edo eskubideak).

Bi motatako bazkideak daude: *sozio kapitalista edo kolektiboak, eta sozio industrialak*. **Bazkide kolektiboek** kapitala eta lana jartzen dute, eta **bazkide industrialek** lana besterik ez.

Bazkide kapitalista edo kolektiboen erantzukizuna hirugarrenen aurrean, sozietatearen zorrak direla-eta, *subsidiarioa, solidarioa eta mugagabea* da.

Bazkide industrialek lana besterik ez dute jartzen eta ez dute enpresaren gobernuan parte hartzen.

Enpresa hauen izena profesional bakoitzaren deiturrek osatzen dute (Sansinenea & Huarte, Errazti & Goikotxea), edota haietako batena eta ondoren “y Cia” hitzak. (Sansinenea y Cia.).

Gutxienezko bazkide kopuru bikoa da eta ez dago gehienezko kopururik. Bestalde, ez dago ere **kapital sozialerako legezko gutxienezko kopururik**, eta ez da adierazten zein modutan egin behar den.

Abantaila nagusia da ospea duten pertsonak elkartzen direla egiten dituzten jardueretan. Profesionalek aukeratzen ohi dute forma hau (abokatuek, medikuek, arkitektoek, enpresa aholkulariek etab.) Elkartzen diren pertsonen ospea funtsezkoa da enpresaren ibilbidearentzat, eta horregatik, bazkideak aldatzeak sozietatea aldatzea ekarri ohi du.

Desabantaila nagusia da malgutasun gutxi duela: debekatuta dago sozietatearen partizipazioa transmititzea gainerako bazkideen baimenik gabe, bazkideen arteko elkarrenganako konfiantzan oinarritzen den sozietate pertsonalista baita.

Sozietatearen kontratua, aldean asmoa islatzen duena, Eskritura Publikoan formalizatu behar da eta Merkataritza Erregistroan izen eman behar zaio.

2.3.3 Erantzukizun mugatuko sozietatea. Enpresa Berria sozietatea⁷.

Sozietate mota hau da neurri txiki eta ertaineko enpresek gehien erabiltzen dutena, eta sarri egiten da familia motako negozioetan, oso malgua delako eta haien beharretara hobeto egokitzen delako. 2/1995 Legeak arautzen du, aurretik aipatua; berritasun garrantzizko batzuk sartu ditu, besteak beste, aldeztu aurretik pertsona fisiko gisa jardun eta jardueragatik beren jabetza pertsonal osoarekin erantzuten zuten enpresaburu indibidualen erantzukizuna mugatzeko sozietate pertsona bakarrekoak eratzeke aukera.

Deitura edo izen sozialak ezin du beste baten berdina izan eta SL edo SRL inizialak eraman beharko ditu alboan. Gutxieneko bazkide kopuru batekoa da SRL pertsona bakarrekoaren kasuan, edo bi beste kasuan, eta ez dago gehienezko bazkide mugarik.

Gutxieneko kapital soziala 3.005,06 €-koa da (500.000 pezeta). Kopuru hori harpidetuta eta guztiz ordainduta egon behar du eraketa unean.

ADIBIDEA: *Zabaleta jauna mekanikaria izan da enpresa batean eta aldeztu aurretik jubilatu dute. Jaso duen kalte-ordainarekin, automobilak konpontzeko negozio txiki bat irekitzea erabaki du berea den lokal batean. Negozioaren alderdi guztiez arduratuko denez gero, pentsatu du arrazoizkoena autonomo gisa alta eman eta pertsona fisiko moduan jardutea dela. Hala ere, lagun batek aholkatu dio komenigarriagoa litzatekeela erantzukizun mugatuko pertsona bakarreko sozietatea eratzea. **Komenta itzazu labur-labur zein izango liratekeen abantailak eta eragozpen nagusiak forma juridiko bat edo bestea hartuz gero.***

Partizipazioak, kapital sozialaren zatiki baten adierazleak, berdina dira, zatietan eta metagarriak, eta bazkidearentzat gainera, ia, sozietate anonimoetako akzioek dituzten eskubide berak dituzte. Hala ere, ezin dira beren transmisioa erraztuko duten tituluen bidez adierazi, akzioen kasuan gertatzen den bezala.

Ekarpenak dirutan, ondasunetan edo eskubidetan egin daitezke.

EMS-REN ORGANOAK

- **Batzorde Nagusia** sozietatearen organo gorena da eta bazkide guztiek dute hartan ordezkaritza. Beren botoaren bitartez, sozietatearentzat garrantzitsuak diren erabakiak hartzen dituzte.
- **Administratzaileak** sozietateaz arduratzen dira eta Batzorde Nagusiaren aurrean erantzuten dute. Administratzaile bakarra egon liteke, edo Administrazio Kontseilu bat era liteke.

ENPRESA BERRIA SOZIETATEA. EZAUGARRIAK:

Erantzukizun mugatuko sozietatearen berezitasun eran arautzen da.

Bazkideak soilik pertsona fisikoak izan daitezke. Eratzen denean bazkideen kopurua ezin izanen da bost baino handiagoa izan.

Kapital soziala 3.012 baino handiagoa eta 120.202 baino txikiagoa izan behar da.

⁷ Sozietate Mugatuaren Enpresa Berriaren 7/2003 Legea, apirilaren 1ekoa, zeinaren bitartez Erantzukizun Mugatuko Sozietateen martxoaren 23ko 2/1995 legea aldatzen den. (2003ko apirilaren 2ko EBO): 2003ko ekainaren 2an indarrean jarriko da.

2.3.4 Sozietate anonimoa.

Aurreko sozietateetan, bazkide kopurua txikia da eta garrantzi handikoa da haien arteko konfiantzazko harremana. Arazoa sortzen da enpresa hazten denean eta bazkide kopuru handiagoa eta kapitala erakarri behar denean; konfiantza bazter batera utzi beharra dago, beraz.

Enpresek finantziazioa behar izaten dute inbertsio berriak egin nahi dituztenean, esate baterako, milioika euro behar direnean inbertsioak egiteko prozesu produktiboan edota makina berriak erosteko. Behar horiek ikusirik sortu ziren Sozietate Anonimoak.

Enpresak txikiak badira, bazkide berriak langileen, senideen eta lagunen artean bilatzen dira. Milioika euro lortu nahi dituzten erakunde garrantzizkoak badira, kapitala erakartzeko merkatu antolatu bat behar dute. Beraz, Balio Merkatuaren Batzorde Nazionalak (CNMV)⁸ ezartzen dituen betekizun batzuk bete ondoren, enpresak Burtsara atera daitezke akziodunak bihurtuko diren inbertitzaileen bila. Horixe da finantziazioa lortzeko modurik merkeenetakoa eta ospe eta entzute handiena eman ohi duena. Merkatu horietara sartzeko beharrezkoa da Sozietate Anonimoa eratzea.

Sozietate anonimoa izaera kapitalista duen merkataritza sozietatea da. Kapital soziala **akziotan** zatituta dago eta libreki transmititzen dira. Bazkideen erantzukizuna egindako ekarpenari mugatzen zaio.

Deitura ezin da beste sozietate baten berdina izan eta "Sozietate Anonimoa" edo "SA" adierazpenak agertu behar du. Bat, hiru edo bazkide gehiagorekin eratu daiteke, pertsona fisikoak edo juridikoak. Ez diote pertsonalki erantzuten sozietateak eginiko zorrei eta **akzioak** izeneko zati alikuota edo proportzionaletan banatutako kapitala jartzen dute. Horixe da bazkideak jasotzen duena sozietateari eginiko ekarpenagatik.

ADIBIDEA. 10.000.000 euroko S.A. baten kapital soziala 100 euroko 100.000 akziotan bana daiteke. Enpresa jakin horretako akzio bakarra bagenu, gure ekarpenaren balioa 100 eurokoa litzateke, eta enpresaren zorrei erantzungo genieke kopuru horretaraino bakarrik (erantzukizun mugatua).

Gutxieneko **kapital soziala** 60.101,21 €-koa da (10.000.000 pezeta). Guztiz harpidetuta egon behar du eta laurdena ordaindu behar da eratzen den unean. Gainerako kantitateak, berriz, dibidendu pasiboak, alegia, Estatutuek ezarritako garaian eta moduan ordaindu behar dira. **Ekarpenak** dirua, ondasunak edo eskubideak izan daitezke, baina inoiz ez lana, sozietate pertsonalistetan gertatzen den bezala.

Akzioak libreki transmiti daitezke, Estatutuek, legearekin bat eginik, berariaz mugatzen ez badute, eta, besteak beste, ondorengo eskubideak dituzte:

- *Boto eskubidea* akziodunen Batzorde Nagusian. Sozietatearen erabaki garrantzizkoenak Batzordean hartzen dira, akziodunen botoaren bitartez.
- *Dibidendu aktiboaren eskubidea*. Akziodunak Batzorde Nagusiak erabakitako mozkin banaketan parte izateko eskubidea du.

⁸ Comisión Nacional del Mercado de Valores

- Likidazio kuotan parte izateko eskubidea.* Sozietatea likidatzen denean, akziodunek sozietatearen zor guztiak ordaindu ondoren gelditzen diren ondasunen eta eskubideen banaketan parte izateko eskubidea dute.

SA-REN ORGANOAK

* AKZIODUNEN BATZAR NAGUSIA

Akziodunek egiten duten bilera Sozietatearen gaiei buruz eztabaidatu eta erabakiak hartzeko. Baliozko eraketa izan dezan, behar bezala deitu behar da eta eskatzen den *quorum*-a bete behar da. Akziodun bakoitzak dituen botoak akzio kopuruaren arabekoak dira eta erabakiak bertan dagoen edo ordezkaturik dagoen kapitalaren gehiengoz hartzen dira.

Akziodunen Batzar Nagusiaren eskumenak, besteak beste, hauek dira: enpresaren administrazioa eraman behar duten pertsonak hautatzea (Administrazio Kontseilua); bere kargu dauden administratzaile postuak baliogabetzen diren erabakitzea, edo administrazioagatik erantzukizunak eskatu behar ote zaizkien erabakitzea, eta estatutu sozialetan aldaketak egitea. Azkenik, Batzarrak sozietatearen urteko kontuak onartzen ditu eta lortu diren mozkinak nola banatuko dituen erabakitzen du.

* ADMINISTRATZAILEAK

Gobernu funtzioak eta Sozietatearen ordezkaritza funtzioak egiten dituzten pertsonak dira. Akziodunen Batzar Nagusiak hautatzen ditu. Organo horrek hainbat forma izan ditzake:

- Pertsona bakarrekoa.* Administratzaile bakarra.
- Administrazio Kontseilua.* Kontseilu honetako kideak, hiru edo gehiago, Batzorde Nagusiak hautatzen ditu gehiengoaren botoaren bidez, nahiz eta gutxiengoek ordezkaritza proportzionala izateko eskubidea izan.

2.3.5 Lan sozietateak.

Lan sozietateak 1970 urteetako krisi ekonomiko orokorraren ondorioz sortu ziren, bereziki eragina izan zuena sektore industrialean. Helburu nagusiak ziren:

- Lanpostua segurtatzeko ahaleginak egitea krisialdi egoeran.
- Langileek enpresaren gobernuan eta mozkinetan parte izateko zuten nahiari erantzutea.

Lan Sozietatea sozietate anonimoa edo erantzukizun mugatuko sozietatea da. Kapital sozialaren zati handiena **langile finkoena** da. Langile finkoek zerbitzu ordainduak eskaintzen dituzte modu pertsonal eta zuzenean, betiere legeak ezarritako betekizunak betetzen badira.

Sozietate hauek bi motatakoak izan ohi dira: Lan Sozietate Anonimoa (SAL) edo Lan Sozietate Mugatua (SLL).

Langile finko gehienek enpresaren bazkideak izan behar dute. Ekonomia sozialeko enpresak deitzen zaie beraz.

Abantaileri dagokienez, sozietate honek sozietate anonimoak edo mugatuak dituen berberak ditu. Gainera, bazkide gehienak enpresaren langileak direnez gero, lana lehentasun nagusi bihurtzen da, kooperatibetan gertatu ohi den bezala. Sozietate hauek abantaila fiskalak izan ohi dituzte.

LSA adibideak: LA MOTAÑESA, EMBUTIDOS PAMPLONICA, ...

2.3.6 Sozietate kooperatiboak.

Kooperatiba **interes edo behar komunak** dituzten pertsona fisiko edo juridikoek eratutako sozietatea da. Elkartu egiten dira enpresa jarduera bat egiteko, egitura eta funtzionamendu demokratikoarekin.

Atxikimendu libre eta ate zabalduaren printzipioak agintzen dute. Bazkideak sartzea eta uztea borondatezkoa eta librea da, kooperatibak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituen ororentzat.

Kooperatibaren **kapitala aldakorra** da eta bazkideen ekarpenek eratzen dute: handitu egiten da bazkide berriak sartzerakoan eta gutxitu batek uzten duenean.

Estatutuek kooperatiba eratzeko gutxieneko kapital soziala finkatzen dute. Erabat ordaindu beharko da eratzen den unean. Kapital soziala bazkideen ekarpen nominatiboetan zatituta dago eta, dagokionean, elkartekideen eta bazkide laguntzaileen ekarpenetan.

Bazkideen **erantzukizuna** zor sozialak direla eta, harpidetu duten kapital sozialaren ekarpenetara egongo da **mugatuta**.

Sozietatearen **deiturak** "Sociedad Cooperativa" edo "S. Coop." hitzak izan beharko ditu derrigor.

Abantaila nagusia da pertsona guztientzat etekingarria izango den jarduera ekonomiko bat egiteko biltzen diren pertsonak elkartetik sortzen dela. Gainera, enpleguak duen lehentasunari esker, egiten diren egokitzapen guztiak diru-sarrerak gutxitzen direnean, partizipazioen murrizketaren bitartez egiten dira, baina ez langile kopuru bat kaleratuz.

Kooperatibak duen **eragozpenetako** bat da litekeena dela bazkideak prest ez egotea beren aurreikuspenaren arabera enpresan egongo diren epea gainditzten duten epe luzeko inbertsioak egiteko. Gainera, kooperatibistak, nahiz eta erantzukizun mugatua izan zor sozialen gainean, arrisku altua hartzen dute beren gain, enpresaren arazoek kapitalik eta lanik gabe utz baititzakete. Beste eragozpenetako bat da, maila nazionalean, sozietate hauek arautzeko dauden arau ugariak. Autonomia Erkidego gehienek beren Kooperatiben Legea garatu dute.

SOZIETATE KOOPERATIBOAREN ORGANOAK

- **Asanblada Nagusia.** Kooperatibaren organo nagusia. Bazkideak biltzen ditu eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko; kooperatibista bakoitzak boto bana du.
- **Kontseilu Zuzentzailea.** Sozietatearen administrazioaren eta ordezkaritzaren arduraduna.
- **Kontu-hartzaileak.** Beren eginkizuna urteko kontuak berrikustea da.

Mondragon Taldea gailentzen da. Munduko talde kooperatibista handiena da. Era askotako sektoretako 150 enpresek eratzen dute. Besteak beste: Eroski, Fagor, Euskadiko Kutxa, Mapsa (aluminio uztaien fabrikatzailea), Lagunaro Aseguruak, ...